

Kanalak

Salmenta kanalak ondo finkatu beharreko beste atal garrantzitsu bat da, ezinbestekoa delako salmenta egiterako garaian ahalik eta jende gehiagok produktua eskuragarri izan dezan, eta hortaz gain, eroslearentzat erreztasunak ematea beharrezkoa delako, eta hau kanal egoki bat aukeratuz lortzen da.

Lehenik eta behin, gure ideia belarritakoak herriko denda batean saltzea izango litzateke. Era honetara, bertan bizi den jendeak fisikoki ikusteko, kalitatea behatzeko eta probatzeko ahalmena edukiko du, eta horrela abantail bat ematen degu, merkataritza lokala bultzatzearen batera noski. Eta beste alde batetik, arazoren bat egonez gero, bertan konpontzeko aukera edukiko dute herritarrek, inora konpontzera bidali gabe, eta honek abantail argi bat du, denbora alegia. Espainiako beste tokietako jendeak produktua guri bidali eta guk konpondu beharko dugu, eta horrek denbora luzeago bat itxaron behar izatea esan nahi du, beraz erreztasun bat da herrian denda bat edukitzea erosketa eta konponketa egiten duena.

Hortaz gainera, esan bezala, gure beste helburu bat espainian zehar produktua zabaltzea da, eta hori lortzeko beharrezkoa ikusten dugu salmenta maila nazionalean egiten duen enprekin kontaktuan jartzea, beraz erabaki dugu Amazon ideia aparta izan daitekela. Gure belarritakoak amazoni emango dizkiogu, eta beraiek bidaliko dituzte etxeetara jendeak eskatutakoak. Honek beste abantail bat du, izan ere, jendeak iruzkinen bitartez lagundu dezakete beraien iritzia emanez, eta guk iritzi hauen bidez produktua hobea izatea lortu dezakegu. Eta arazoren bat edukiz gero, bertan idatzi eta gu berarekin kontaktuan jarri gaitezke belarritakoa guri bidaltzeko eta konpondu ahal izateko.

Amazonen gain, pentsatu dugu beste salmenta kanal bat gure webgune propioa egitea izan daitekeela. Webgunea diseinatu eta ahalik eta erreztasun

gehienak jarriko ditugu, eta bertatik produktua erosi ahal izango du jendeak. Gainera, produktuen azpian beraien buruzko informazio guztia egongo da, beraien ezaugarri guztiekin. Baina hau egitearen arrazoi nagusia bezeroekin harreman estuago bat izatea da, izan ere, guri iruzkinak edo kexak bidaltzeo esparru bat izango du, eta era honetara erosleekin kontaktuan jarriko gara, bai konponketak egiteko baita belarritako pertsonalizatuak egin ahal izateko.

Beraz, salmenta bai online bai fisikoki egingo dugu, eta bakoitzak bere abantailak izango ditu. Baina esan bezala, online bidez erositako belarritakoekin arazorik izanez gero, gurekin kontaktuan jarri ahalko da jendea, eta guk ahalik eta azkarren konponduko dugu.